

## Errekaldeko ipuin basak



### ***Don ibaiko ipuinak***

Egilea: Mikhail Alexandrovitx Sholokhov

Itzultzailea: Olga Mtz. de Marigorta eta Roberto Serrano

Argitaratze urtea: 2007

Argitaletxea: Alberdania&Elkar

### KARLOS DEL OLMO

Duela ehun urte pasatxo, 1905ean, jaio zen mundura, nekazari famili baten altzoan, Mikhail Alexandrovitx Sholokhov. Eta jatorriarekiko lotura igarri-igarria zaio, ezin ukatuzko moduan, batez ere honako idazlan honetan. Baita hamabost urterekin gudaroste gorrian izena eman eta hartan *Don ibaiko ipuinak* bilduman islaturiko basakeriak eta heroikotasunak hur-hurretik bizi izan zituela ere. Moskun egon ondoren, 1924an jaioterrira bueltatu eta bi urteren buruan, arrakasta itzelez, *Donskie rasskazi*, alegia, *Don ibaiko ipuinak* kontakizun bilduma plazaratu zuen. Artean gazte-gaztea izanik, gaurko ikuspegitik basa samar baino, nonbait, hurbileko gerta daitezkeen kontakizun horietan, iraultza osteko giro hartako gizakiaren eta izadiaren arteko harreman krudel bezain hunkiberak trebe ere trebe jaso zituen, apika adinean aurrerratuago dagoen bati legokiokoen moduan, harreman dialektiko odoltsu halako batean.

Idazlea berehala hasi zen sariak eta aipamenak jasotzen aginte sobietikoaren eskutik, Alderdi Komunistako batzorde zentraleko kide ere izendatu zutela. Nobel Saria eskuratu zuen, egun erabat arrotz, ezezagun eta urrun dirudien bloke sobietikoaren literatura errealistaren ordezkari bikain-bikaina bide zelako. Herri bizitza eta herri hizkera, hara hor Sholokhoven literatur asmo lehenak.

Idazlearen iritziz, eleberria mundua ulertzeko tresna da, banakoari mundua eta munduko arazoak entenditzen eta haien aurrean jarrera hartzen laguntzen dion lanabesa. Eta, batera, irakurleari bizitzaren izugarritasunean sakontzeko esku eman ez ezik, bizi haren aurrean ikuspegi artistikoa izateko laguntasuna eskaintzen ere dio. Jakina, ia beti, ikuska errealista darabil, benetako bizitzaren taupadak bilatu guran. Arte errealtate zalea sutsu bai sutsu defendatzen zuen. Artista esperimentalak barik, aitzindaritzat zituen eguneroko bizitzaren alde guztiak islatzea langai zerabilten artistak. Lehenaldiko ertilaririk bikainenak, klasikoenak errealistak zirela zioen. Denbora aurrera joan ahala, lan klasikoak modernotasun balioak irabaziz doaz, eguneratze etengabe batean. Horrelako errealismo batek berarengan ekarri behar du bizi erregenerazio etengabe bat, gizakiaren aldeko berregite segitu bat. Errealismo sozialista darabil jardungai, zertan esan ez dago. Gizakia nekez kontsidera daiteke bizi duen ingurutik aparte eta gobernatzen duten legeetatik eta ekanduetatik at, horixe erakusten ahalegindu zen idazlea ipuin sorta honetan. Baina, aldeak alde, mundu osoan zehar, gizon-emakume guztiek antzeko nahi eta bizi helburuak izan ohi dituzte. Bestela esanda,

gehiago dira gizakiak berdintzen, elkarri katigatzen gaituzten lokarriak, banatzen edo ezberdintzen gaituzten aldeak baino.

Mikhail Alexandrovitx Sholokhovek ohore handizat zuen luma eta trebetasuna langileen eta zapalduen zerbitzura jartzea. Gizadiaren suntsiketaren aurka nahitaez jardun behar du idazleak, beharkizun moral gisara. Iraultza sobietikoa ez ezik, XX. mendeko bi mundu gerrak ere ezagutu zituen idazle baten lanak, ondo pentsatuz gero, ba ote bestelakoak izan?

Orokorrean, erraz irakurtzen den itzulpena paratu dute Olga Martinez de Marigorta eta Roberto Serranok, aberatsa esamoldez, itzulpen joera idiomatiko eta etnozentraren arabera; seguru asko, horrelako ipuingintza errealistak euskaraz gurata sortzean balizko idazle batek erabiliko lituzkeen hizkuntz baliabideetatik hurbil. Jakina, Sobiet Batasuneko eta lehengo Errusiako zenbait kultur eduki batzuetan oztopotxo ere bihur daitezke, baina gaindiezin izateke. Hasi bidez balirudike testu errealista bat itzultzeak errazago behar lukeela surrealista ordaintzeak baino, nahiz eta, sarri bai sarri, beti hala gertatu ez. Literatura unibertsala —norberaren auzotik harantzagoko mundua bera, azken batean— itzulpen bidez jaso ohi dugu, ondo ohartuta egon ala ez, teorilari batzuek dioskutenez, itzultzailearen erabateko fideltasuna ezinezkoa dela, eta alderdi hori beti izango dela ondo kontuan izan beharreko kontua, itzulpena, edertasuna eta zientzia legetxe, inoiz ere ez delako errugabe gertatzen. Baina, bestalde, ez ote da hura, hain suertez, alderdirik ederrena itzulpengintzan? Alegia, itzulpena edertasunaren eta zientziaren maila berean egotea, egitasunari gagozkiola.